

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

XVI. mendearen lehen erdiko Nafarroako administrazio eta finantziario militarren buruzko liburua argitaratu da

José Miguel Escribano Páezen lana da; 500 ale argitaratu dira eta 15 euroren prezioan salduko.

Martes, 11 de agosto de 2015

Nafarroako Gobernuak José Miguel Escribano Páezen "El coste de la defensa. Administración y financiación militar en Navarra durante la primera mitad del siglo XVI" izenburuko liburua argitaratu du. 500 ale argitaratu dira, eta 15 euroren prezioan salduko dira.

"Historia" saileko 129. lana denak Nafarroako Erresumaren historia berritza da helburu, "Nafarroa modernoa eraldatu zuen muga militarra eraiki eta mantentzean nabariago eta konplexuago bihurtu ziren akordioak eta desakordioak aztertuta".



Liburuaren azala.

Ondorio nagusiak

Ondorioen artean, zera dio egileak: "Zalantzarik gabe, Nafarroako erresuma Gaztelan gehitzeak ekarritako erronkarik handienari aurre egitea lortu zuen Espainiako monarkiak: haren defentsa bermatzea eta Pirinioetako lurralde txikia Nafarroako muga militar eraginkor bihurtzea. Ez zen batere erraza izan orduko erresumaren barneko egoera kontuan izanik. Aurrez ez zuen izan egitura militarrik, eta, errege-agintek botere aristokratikoak oraindik mende hartu ez zituen tokia izanik, indarkeria zerabilten alderdi aurkarietan zegoen zatituta. Zailtasun horien aurrean, Nafarroako erresumak abantaila handia eskaintzen zuen: Frantziaren eta iberiar penintsularen arteko lotura-bide nagusiak kontrolatu ahal izateko zuen kokapen pribilegiatua".

Bestalde, José Miguel Escribanok dioenez, Nafarroaren eta Gaztelaren arteko harreman berezia "bi erresumen onerako izan zen teoriarik, nahiz eta, praktikan, Nafarroakoaren kasuan, denek ez eskuratu

irabazi berdinak".

"Egitura militarra izatearen garrantzia ez zen konkistarako eta ondorengo noizbehinkako gatazketarako bakarrik", dio egileak aurrerago. "Alderantziz; Nafarroa bezalako lurraldean, egitura militarra errealitate politikoaren parte izatera pasa zen, konkistaren unetik hasita, eta hala izaten jarraitu zuen Nafarroa muga izan zen bitartean".

Alfredo Floristán Imízcozek aurkezpenean esandakoaren arabera, liburua gerraondoko lehen hiru hamarkadei (1512-1542) buruzkoa da, eta Gaztelak lurraldea kontrolatu eta defendatu ahal izateko aplikatutako baliabide militarren kudeaketaren gaia du ardatz, baita horrek nola baldintzatu zuen Nafarroa Espainiako monarkian politikoki gehitzeko prozesu hasiberria ere. Ordura arte armarik gabea, neutrala eta independentea izan zen erresuma Espainiako monarkiaren barruan sendo armaturiko mugako bastioi bihurtu zen urte gutxian. Hori dela eta, bi alderditan egokitu beharra egon zen. Xeheki aztertu du hori José Miguel Escribanok".

Floristán Imízcozen ustez, "ondo ezagutzen ditugu erresuma Gaztelan/Espainian sartzea eragin zuten Nafarroako gerren (1512-1522) urrutiko zein gertuko atarikoak, baina ez dakigu ia ezer horien berehalako ondorioez. Gerraondoko urteei buruz hitz egiteko orduan, hurbilketak egin dira (zehaztugabeak betiere) eta apriorismoa baliatu da (zurrunegia, batzuetan ez asmatzea eragiteko bestekoa). Hala eta guztiz ere, orain, Gaztelaren konkistaren ondoren erresuman gertatutakoari buruz jakin dezakegu, lan dokumentatuari esker. Ez zaio jarri arretarik gaiari orain arte, besteak beste, agian, aurki zitekeenari edo ez zitekeenari beldur izateagatik".

Egilea

José Miguel Escribano Páez Historian lizentziatua da (2008). Gaur egun, doktorego-ikasketak egiten ari da Florentziako European University Institute erakundeko historiaren eta zibilizazioaren departamentuan.

Aurrez egindako lanei etaosatzen ari den doktore-tesiari esker, azterlanerako alor pribilegiatu bihurtu da Nafarroa Europa modernoaren garaiko kontu sozio-politikoak hobeto ezagutzeko, hori baita bere aztergai nagusia. Nafarroako erresuma eta haren historia ezagutzeko interesak bultzatuta, hainbat argitalpen ditu estatuan eta nazioartean.